

Gure fikzioa, lehena?



ENEKO OLASAGASTI
ZUZENDARI ETA
GIDOILARIA

Gustatuko litzaidake lerroburuko galdera ikurra hortik desagerraraztea edota ipini beharrik ez izatea, baina zoritxarrez udazken honetan jasan behar izan dugun autopublizitate kanpainaren leloa besterik ez delakoan nago. Bestela, zertarako ipini? Hala balitz inork ez luke abizen horren beharrik horrela dela baieztatzeko. Oro har, gizarteak aspaldi egin beharreko zerbaiten berreskuratzea bezala ikusi du. Urte luze batzuetako lehortearen ondoren badator berriz ere fikzioa ETBko pantailara. Eta hori ospatu egiten dugu gainera. Normaltasunetik zeinen urrun garen, beste adierazle bat. Eta salbuespenetik ez gaude libre, ez baita ziurra horrek segida izango duen. Zeren izango balu dagoeneko izango genuke datorren urterako telesailen berri, halako ekoiztetxea ari dela casting berri bat prestatzen, telesail berriak aurkezteko deialdiak egin direla... Gure inguruan halakoen gaineko zurrumurruak berehala zabaltzen dira eta oraingoz txintik ere ez. Tira, edozein herritan normaltasunaren barruan kokatuko litzatekeenak gurean opari bati ematen zaizkion txaloak jasotzen ditu. Ez gaitzaten engaina, gure fikzioa ez da lehena, inondik ere ez.

Neuk eta garai bateko nire lankideak behin eta berriro errepikatzen genuena

datorkit oraingoan ere gogora. Ezagutzen eta gertuen genituen ereduak begiratuz gero, haiek atal bat egiteko zuten aurrekontuarekin guk telesail osoa egin behar izaten genuen. Eta gainera, garai haietan ez zegoen egun dagoen eskaintza eta atal bat ikusterakoan ikusleak ez du hori kontutan hartzen, baina homologazioaren mamua hor egon da beti, orduan eta orain ere bai. Aldea nabaria zen eta da, gaur ere. Batere meriturik kendu gabe, noski, udazken honetan ikusi ditugun telesailetak egileek egin duten ahaleginari, guztiz txalogarria.

Beraiek ez dute aitortuko, ezin baitzaio hozka egin jaten ematen dizun eskuari. Baina esan beharrik ere ez daukate. Lerro hauek idazterakoan, *Altsasu* ikusi gabe oraindik, *Alardea* eta *Hondar ahoak* egiteko ekoizpen baldintzei erreparatuz gero eskasia nabaria da. Adibide bat ipintzearen, nola ulertu *Alardea*-ko azken atalaren sekuentzian, emakumeen konpainiak desfilatzen duen horretan alegia, konpainia dozena bat emakumek besterik ez osatzea? Nahiz eta dena plano motzetan kontatu. Ez dut lekurik eta baimenik adibide gehiago ipintzeko, baina egon badaude.

Talentua sobera dugu, hobetu ditzagun ekoizpen baldintzak. Euskal ikusleak ez du gutxiago merezi. ●

Jargoi



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Pandemiaren atzaparretatik bizirik ateratzen baldin bagara, diplomarik gabeko mediku kalakari bihurtu ginen 2020ko urteaz oroituko gara, guk ere deblauki aburua emateko ohi-tura landu dugulako, normalean gureak ez diren alorretan. Pantailak berdinki, iritzi emailez, medikuz eta epidemiologistez bete zaizkigu. Ostatuak itxiak izanez, tele-eztabaida politikoak, maskara jantzi ala utzi gaiaren inguruan garatu dira eta gobernuak erabaki du zer den premiazkoa eta zer ez. Episodio sanitario hauetan ikasi dugu liburuak ez direla beharrezkoak. Arrazoi du behar bada neoliberalismoaren orakulu nagusiak: ostiral beltzak baizik ez du muntarik...

Osasunaz haragoko hiztegi mamitsu baten jabe egin gara etxekotuak pasatu ditugun 2020ko sei hilabeteetan: Euskalterm berri andanak, aditz new age zenbait, atzizki sinets ezinak... eta ikusi dugu eguneroko ele zenbaiten epidemiaren saltsara lerratzea, hala nola gailurra, Iparla kaskoari baino orain COVID-19ari aplikatzen zaiona, halaber lautada edo ordokia. Fraseologia hori ezpainetan ateratzen gara, baimenak sakelan, gurtzatzen ditugun ezezagunekin ideia lausoak partekatzeke. Baina nehork ez du mintzatzeko gogorik. Ulergarria. Wartaman populukoa naiz eta jargoiak berehala ezabatuko dizkidan zakur goriaren ulua entzun nahi dut... ●